

# POETIKA

ARISTOTELES

## 1. kapitulua

(1477a) Mintza gaitzen bai poetikari berari buruz bai haren espeziei buruz, horietako bakoitzak duen dena-delako ahalmenaz, eta, poesia-lana taxu ederreko egin nahi bada, (10) kontakizunak<sup>1</sup> konposatu behar diren nolatasunaz, eta, halaber, poetikaren atalen zenbatasunaz eta nolakotasunaz; era berean, baita ikerketari berberari dagozkion gainerako gai guztiez ere. Has gaitzen, lehenik eta behin, modu natural batean; hau da, lehenengo hastapenetatik.

Izan ere, epopeia eta tragediaren poesia, komedia eta ditiranbopoetika<sup>3</sup>, (15) eta baita auletikaren<sup>4</sup> nahiz kitaristirikaren<sup>5</sup> lanik gehienak ere, <arte> guztiak imitazioak dira oro har hartuak; hala ere, ezberdinak dira elkarren artean, hiru gauzarengatik: baliabide ezberdinekin imitatzeagatik, gauza ezberdinak imitatzeagatik, nahiz era ezberdinean imitatzeagatik, eta ez modu berean.

---

<sup>1</sup> kontaerak, kontaketak/argumentoak

<sup>2</sup>kontaerak, kontaketak. **\*\*mythos** gaur egungo «argumentua» da eta poetikaren gai garrantzitueneren bat. Platonek ere poesiarekiko *mythos*-aren garrantzia azpimarratzen zuen: «poetak, poeta izateko asmoa badu, hain zuzen, argumentuak sortu behar izango lituzke, ez *logoak*» (Fedon, 61b). *Poetika*-ren kapitulu 7-11-etan mintzatzen da «argumentuz».

<sup>3</sup> **\*\*Ditiranboak** koponitzeko antzea da. Ditiranboa Dionisoren ohorezko himno korala zen eta dantzan egiten dira. Denboraren poderioz, Vgarren mendean K.a., batzez ere, lirismoa galduz joaten ziren eta dramatiagoak bihurtzen ari ziren.

<sup>4</sup> **\*\*Auletika** *aulos* jotzeko antzea da. *Aulos* haize instrumentua da eta bi hoditakoa zen.

Batzuek, koloreak eta ereduak baliatuz imitatzen dute gauza asko, irudiak antzeratuz (batzuek, arteari esker; besteek, ohituragatik); (20) bestetzuek, ahotsaren bidez egiten dute hori; hala ere, aipatutako arte guztiek, den-denek, erritmoa, hitza eta armonia erabiltzen dituzte imitazioa egiteko, zein bere aldetik, nahiz elkarrekin nahastuta. Adibidez, armonia eta erritmoa besterik gabe baliatzen dute auletikak eta zitaristikak, eta ahalmen berari dagozkion bestelako arteek; (25) esate baterako, siringen<sup>6</sup> arteak. Eta erritmo hutsarekin, armoniarik gabe, dantzari batzuek imitatzen dute (izan ere, horiek, eredu bihurtutako erritmoekin, aiurriak, grinak eta ekintzak imitatzen dituzte). Gertatzen da, ordea, hizkera laua ala lerroak –dela mota ezberdinetakoak nahasiz (1447b), dela mota bakarreko lerroa erabiliz–erabiltzen den artea izengabekoa dela orain arte.

Izan ere, ezin ditugu (10) inondik inora izen komunarekin batu Sofronen<sup>7</sup> nahiz Xenarkosen<sup>8</sup> mimoak eta elkarrizketa sokratikoak<sup>9</sup>, ezta norbaitek imitaziok trimetro janbikoekin, elegia-distikoekin, edo horrelako beste edozein lerroekin egingo balitu ere. Baina, gizakiek, metroa eta sorkuntza poetikoa bata bestearekin lotzen dutelako, batzuei poeta elegiako deitzen diete, eta beste batzuei, berriz, poeta epiko; hori dela eta, (15) izendapen

---

<sup>5</sup> \*\*Zitaristika *zitarra* jotzeko antzea da. *Zitarra* hari instrumentua da eta. Auletika eta zitaristika berez dira musika, baina, ahotsaren akonpainamendua denez, *mimesis* dira; izan eer, hitzik gabe ez dago *mimesis*-ik.

<sup>6</sup> \*\*\*\*Siringa haize instrumentua da eta alda daitekeen hodietakoa zen, bakoitzak altueta eta tonu ezberdinekoa zen.

<sup>7</sup> Sofron Sikiliako Sirakusan zuen jatorria, eta *mimo* genero literarioaren sortzailea da. V K.a. bizi zen Jerjeren eta Euripidesen garaian, hain zuzen, *Sudak* esanda, eta hitz lauan eta dialekto doriaz idatzi zituen emakume eta gizona buruzko mimoak; fragmentu txiki batzuk bakarrik kontserbatu dira papiroetan. Diogenes Laertiok (3,18) esaten du Atenasera Platonek eraman zituela; horrek Sofronen estiloa bere *Elkarrisketan* imitatu zuen.

<sup>8</sup> Sofronen semea zen eta aitaren generoa landu zuen; badirudi satira politikoa ere landu zuen bere mimoetan.

horiek ez diote imitazioaren naturari begiratzen, komunean duten lerroari baizik. Idazle batzuei, nolabaiteko eduki mediko edo fisiko bat metroen bidez adierazten dutenean, lerroen arabera deitu ohi diete halaber. Hala ere, ez dago ezer komuna Homeroren eta Empedesoklesen artean, lerroa izan ezik; horregatik da zuzena batari poeta deitzea, eta besteari, berriz, fisiologo, baina ez poeta. (20) Eta, berdin, norbaitek mota guztietako metroak nahasiz egingo balu imitazioa, Keremonek metro guztiak baliatuz *Kentauro* rapsodia egin zuen bezalaxe, norbait horri poeta izena eman beharko litzaioke. Kontu horiei dagokienez, beraz, gera bedi jakintzat egindako bereizketa. Baina badira arteak aipatutako baliabide guztiak – erritmoa, kantua, eta metroa–erabiltzen dituztenak, (25) esate baterako, konposaketa ditiranbikoen eta nomoen olerkigintza, tragedia eta komedia bezalaxe. Haien arteko aldea da batzuek batera erabiltzen dituztela guztiak, eta besteek, berriz, atalka. Beraz, horiek dira, diot, arteetan dauden ezberdintasunak, imitaziorako erabiltzen dituzten baliabideei dagokienez.

## 2. kapitulua

(1448a) Gaur egun, ekiten duten gizakiak imitatzen dituzte, eta beharrezkoa da gizaki horiek arduratsuak nahiz ziztrinak izatea (izan ere, giza-aiurriak ia beti bi tipo horietan barnebiltzen dira: gizaki guztiengan bizioaren edo bertutearen arabera bereizten dira aiurriak). Beraz, gu baino hobeak, txarragoak edo parekoak diren pertsonaiak imitatzen dira; margolariek egiten duten bezala, hain zuzen: (5) Polignotok hobeak margotzen zituen, Pausonek txarragoak, eta Dionisiok, berriz, parekoak.

---

<sup>9</sup> Elkarrizketa sokratikoak dira Aristotelen ustez, Diogenes Laertiok (3,37) gogoratzen duenez, «(Platonen) elkarrizketen forma olerkiaren eta hitz lauaren artekoa da».

Aipatutako imitazio bakoitzak ere ezberdintasun berberak izango dituela bistan da, eta arte ezberdinak izango dira gauza ezak imitatzeagatik esandako moduan. Ezberdintasunak horiek ager daitezke, zinez, (10) dantzan, aulos-jotzean eta zitara-jotzean; halaber, baita hitzaldietan eta lagungarri musikalik gabeko metroetan ere. Esate baterako, Homerok gizaki hobeak egiten ditu, Kleofontek parekoak, eta, Tasoko Hegemonek, parodien sortzaileak, nahiz Nikokarisek, Deiliada-ren egileak, euren aldetik, txarragoak. Esandakoak berdin balio du ditiranboei eta nomoei dagokienez ere; izan ere, batek(/norbaitek/inork) Ziklopeak imita litzake, Timoteok eta Filoxenok egin duten bezala. Halaber, ezberdintasun berean datza tragediaren eta komediaren arteko aldea: horrek/komediak gaurko gizakiak baino txarragoak imitatu nahi ditu; hark, oster, hobeak.

### 3. kapitulua

Oraindik ere, badago arte horien artean hirugarren ezberdintasuna: (20) objektuetako bakoitza imitatzeko erabil litekeen modua. Izan ere, batek/norbaitek modu berberean gauza berberak imita ditzake, batzuetan narrazioaren bidez –Homerok egiten duen bezala: nahiz beste bat bihurtuz, nahiz hark berak narrazioa eta bihurketarik gabe eginez–; beste batzuetan, berriz, imitatzen diren gizaki guztiak haiek beraiek jardungo eta jokatuiko balute bezala irudikatuz. Beraz, hasieran esan bezala, imitazioa hiru ezberdintasun horietan datza: baliabideei dagokienean, gauzei dagokienean, eta moduei dagokienean. (25) Horrenbestez, zentzu batean, Sofokles Homero bezalako imitatzaila da, biek gizaki arduratsuak imitatzen baitituzte; beste zentzu batean, ordea, Sofokles Aristofanes bezalakoa da, biek ala biek ekiten eta jokatzen duten gizakiak imitatzen baitituzte.

Batzuek diote horrexegatik deitzen zaiela (aipatutako autoreen<sup>10</sup>) lan horiei drama, jokatzeko/ekiten duten <gizakiak> imitatzen dituztelako, alegia. Hori dela eta, tragedia eta komedia asmatu izana aldarrikatzen dute doriotarrek (30)—komedia hemengo megaratarrek, beraiek ezarritako/sortutako demokraziaren garaian sortu omen zelako, eta baita Siziliako megaratarrek ere, Epikarmo olerkaria Siziliako baitzen, eta Kionides eta Magneto baino askoz ere lehenago jaio zelako; tragedia asmatu izana, berriz, (25) Peloponesoko Megaratar batzuek—, eta izenak dituzte frogatzat. Esaten dute, hain zuzen, haiek aldiriei *kômai* deitzen dietela, eta atenastarrek *dêmoi*, uste baitute *komediante*<sup>11</sup> izena ez dela *kômazein*-etik eratorri, baizik eta komedianteak, hiritik kanporatzen zituztenean, *kômai*-etan alderrai ibili izanari zor zaiola; bestalde, «egin» esateko «drân» erabiltzen dute, eta atenastarrek, berriz, «práttein». (1448b) Horrenbestez, imitazioaren ezberdintasunei buruz, haien kopuruari eta nolatasunari buruz, nahikotzat har bedi esandakoa.

#### 4. kapitulua

Badirudi poetika bi kausarengatik sortu zela batez ere, eta naturalak dira bata zein bestea. Izan ere, gizakiek berezkoa dute, txikitandik, imitatzeko gogoia; horrek gainerako animalietatik bereizten du gizakia, animaliarik imitatzailena delako/da eta, eta bere lehenengo ezaguerak imitazioaren bidez erdiesten dituelako, eta, gainera, gizaki guztiek berezkoa dute, halaber, imitazioz/ imitazioekin atsegin hartzea.

---

<sup>10</sup> autore guztiak ala Sofokles eta Aristofanes bakarrik?

<sup>11</sup>*kômôdoi*

Horren adierazlea da errealitatean gertatzen dena: nahiz eta gauza batzuk bere horretan atsekabez begietsi, atsegina hartzen dugu haien irudiak ikusten ditugunean, ahalik eta zehaztasun handienaz eginak; adibidez, piztiarik higuigarrienen eta hilotzen formak. Arrazoia honako hau ere bada, alegia, filosofoentzat ez ezik, gainerako gizakientzat ere oso atsegingarria dela ikastea; (15) kontua da gutxiago arduratzen direla ikasteaz. Horregatik hartzen dute, hartu ere, atsegin irudiak ikusten, gertatzen baita irudiak begietsiz ikasten dutela, eta gauza bakoitza zer den ondorioztatzen dute; adibidez, hori hura dela. Izan ere, baten batek irudiak, haren erdua aurrez ikusi ez bada, ez du plazera sortuko imitazioa den aldetik, baizik eta bere egikeragatik, (20) koloreagatik nahiz horrelako beste kausaren batengatik. Guri berezkoak zaizkigunez imitatzea, armonia eta erritmoa (agerikoa baita metroak erritmoen zatiak direla), zer horietarako dohatuenak zirenak, hasieratik joan ziren aurrera egiten apurka-apurka, eta, haien bat-bateko saioretatik, olerkigintza sortu zen. Baina, egileen aiurriaren arabera, olerkigintza zatikatu egin zen; (25) izan ere, benagoak direnek ekintza ederrak eta mailakideen ekintzak imitatzen dituzte, eta, aiurri makurragokoak direnek, berriz, gizaki ziztrinen ekintzak, hasieratik bertatik idazki iraingarriak konponitu dituztelarik; besteek, oster, himnoak eta gorespenak egin dituzte.

Dena dela, Homero baino lehenagoko olerkarien artean ezin da aipatu tankera bereko<sup>12</sup> olerki bakar bat ere, nahiz eta posible den asko eta asko egon izana; baina Homerorekin hasita, osterra, aipa daitezke, adibidez, haren *Margites* lehenengo eta parekoak ondoren. Horietan metro janbikoa agertu baitzen, egokia dena horrelako olerkientzat –oraindik ere janbiko

---

<sup>12</sup>hau da: aipatutako olerki motatakoak bezalakoak: idazki iraingarriak, hain zuzen.

deitzen da metro hori, poetek metro horrekin elkar egiten zutelako iseka. Beraz, antzinako olerkarien artean, batzuei olerki heroikoak egitea egokitu zitzairen, eta, beste batzuei, aldiz, janboak egitea. Hala ere, Homero, gai jasoen poeta gorena izan zelarik (bera baitzen bakarra imitazio ederrak ez ezik, dramatikoak ere egin zituen), komediaren egitura proposatu zuen lehena izan zen, dramatizatu zuelako ez zera iraingarria, zera irrigarria baizik. Izan ere, nolakoa *Iliada*-k eta *Odisea*-k tragediarekiko duten erlazioa, (1449a) halakoa da *Margites* komediekiko duena.

Tragedia eta komedia agertu zirenean, olerki-mota batean zein bestean jarduten zirenek, nor bere joerari men eginez, batzuk, janboak utzita, komediagile bihurtu ziren, eta (5) besteak, olerki epikoak utzita, tragediagile; forma berriak aurrekoak baino handiagoak eta preziatuagoak zirelako.

Beste kontu bat da tragedia, bere osagaiei dagokienez, forma egokira iritsi denentz aztertzea, hori berezko aldetik edota antzezpenen aldetik ebatzi behar ote den erabakitzea. Izan ere, bat-bateko saioretatik sortu ziren, (10) bai tragedia bai komedia (bata ditiranboa gidatzen zutenengandik, eta bestea kantu falikoak –oraindik hiri askotan bizirik daudenak– gidatzen zituztenengandik; pixkanaka garatu zen tragedia, eta ageriko bihurtzen joan zen, lantzen zutenei esker; eta, aldaketa askoren ondoren (15), bere natura erdietsi zuenez gero, finkatu egin zen.

Eskilok, estreinakoz, batetik bira igo zuen antzezle kopurua, koruaren partaidetza gutxitu zuen, eta elkarrizketari eman zion lehentasuna/nagusitasuna. Sofoklesek hirugarren antzezlaria ekarri zuen, eta eszenografia gaineratu zuen. (20) Handitasuna ere iritsi zen: bilbe ñimiñoak eta mintzaera komikoa, satiroen korotik zetoenez gero, alde batera utzi zituen tragediak eta, horrela, maila noblea jo zuen, denbora baten buruan;

metroari dagokionez, trimetro janbikoak lehengo tetrametro trokaikoa ordezkatu zuen. Izan ere, hasiera batean, olerkariak tetrametroa erabiltzen zuten, orduko olerti satirikoa eta askoz ere dantzazkogoia zelako. Tragediak elkarrizketa bereganatu zuenean, ostera, haren naturak berak aurkitu zuen metro egokia; izan ere, janbikoa da, inondik ere, elkarrizketaren metroa. (25) Hona horren adierazlea: gure arteko solasaldian ezin konta ahala/hitzetik hortzera esaten ditugu janboak; hexametroak, aldiz, oso gutxitan darabilzkigu, eta, beti ere, elkarrizketaren erritmotik urrunduta. Bestalde, bai tragediaren episodio kopuruari dagozkionak, bai (30) gainerako zatien apainketari buruzko berriak, jo ditzagun esantzat; izan ere, lan handia izango litzateke, ziur aski, zatiak bat-banaka zehazki azaltzea.